



UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



IZENBURUA:

Hizkuntza-ohiturak plano
pertsonaletik kolektibora

EGILEA:

Pello Jauregi Etxaniz

DATA:

2018/05/05



Aurkibidea

1. Sarrera 3

Erabaki pertsonaletan oinarritutako ekimenek, hizkuntza-araua aldatzeari dagokionez, biko harremanetan dute eragin-esparrurik handiena. Baina nabarmen jaisten da haren emankortasuna bitik gorako harremanetan. Hutsune hori estaltzen dute erabaki kolektiboetan oinarritutako ekimenek.

2. Zergatik erabaki kolektiboa? 7

Erabaki kolektibo batek gaitasuna eta ahalmena ditu eremu osoko hizkuntza-araua aldatzeko, prozesu horri zilegitasuna ematen diolarik.

3. Non aplikatu erabakia? 7

Beharrezkoa da erabaki kolektiboaren subjektua zehaztea -“gu” esatean nortzuk garen zehaztea alegia- erabakiaren eragin-eremua ezagutzeko.

4. Zer erabaki? 8

Baldin praktika soziolinguistikoan oinarrituta hizkuntza-berdintasuna bermatzea bada erabaki kolektiboaren xedea, orduan hiru eszenatoki praktiko zabaltzen zaizkigu: “Belarriprest eremuak” biziberritzea, “Belarriprest eremuak” sortzea, edo “Belarriprest eremuak” babestea.

5. Nork erabaki? 11

Gehiengo kualifikatu batek indar eragozleak neutralizatzen ditu eta gatazka giroa alboratzen. Era horretan, zabal eta sendo hel diezaioke talde batek hizkuntza-egoera berriak eskatzen duen ahalegin bereziari.

6. Noiz erabaki? 11

Komeni da erabakiei iraupen tarte jakin bat ematea eta erabakiak maiz berrestea, horrek talde bati aldaketarako ahaleginak bere beharren arabera kudeatuta izango direla segurtasuna ematen diolako. Taldea bere prozesuaren jabe sentituko da.



1. Sarrera

Ponentzia hau ez da modu isolatuan hartu behar, baizik eta Pablo Suberbiolak aurkeztutako “Ulermena aktibatzeneko metodologia berriak prestatzen” ponentziaren osagarritzat. Metodologia berri horien atzean dauden hausnarketak eta uste teorikoak dira funtsean ponentzia honetan biltzen direnak. Beraz, bai hark ikuspuntu praktikotik eta bai honek ikuspuntu teorikotik helduta Aldahitz ikerketa-egitasmoaren ekarpena eskaintzen dute¹.

Ponentzia honen izenburuari erreparatuta, aurrena ñabardura garrantzitsu bat egin beharko genuke, zentzu hertsian, hizkuntza-ohiturak ez baitira inoiz plano pertsonal hutsean gertatzen, ez eta hizkuntza-ohituren aldaketa prozesuaren kasuan ere. Hizkuntza-ohiturarena beti da jarduera kolektiboa. Hizkuntza-ohitura solaskideek partekatzen duten hizkuntza-jokaera da, elkarri egokitu behar diren ondorioz mamitzen den jokaera, eta elkarrekiko jarduna modu erraz, oharkabe, azkar eta eraginkorrean erregulatzen duena. Era berean, hizkuntza-ohituraren aldaketak ere berez du izaera kolektiboa, zeren batetik harreman kolektibo bat arautzen duen hizkuntza-arau bat auzitan jartzen baitu ariketa horrek, eta bestetik hizkuntza-arau berri bat eraikitzea joaz kiden arteko egokitze berria gauzatzeari ekin behar baitio talde batek bere eguneroko jardunean. Hizkuntza-jokaera, eta are nabarmenago hizkuntza-ohituren aldaketa, beti gertatzen dira plano kolektiboan.

Bi modu ditugu, ordea, prozesu kolektibo horiek abiatzeko. Aurrena, *erabaki pertsonalek* abiatutako prozesuak ditugu, eta, bigarren, *erabaki kolektiboetan* oinarritutakoak. Abiapuntu bat ala bestea hartu ezaugarriak ez dira beti berdinak izaten, ez eta ondorioak ere. Komeni da desberdintasun horiek zertxobait aztertzea.

“11 egun euskaraz” Euskaraldiaren 2018ko bertsioa erabaki pertsonaletan oinarritutako ekimenaren adibide argia da. Herritarrek –beraiek partaide diren talde, elkarte, erakunde edo enpresen hitza ezagutu gabe ere- aukera izango dute ekimenean parte hartu ala ez erabakitzeko, eta parte hartzekotan Ahobizi edo Belarriprest gisa parte hartuko ote duten erabakitzeko. Hainbat herritar, ordea, bi zeregin horietatik kanpo geldituko dira, aparte. Batzuek nahita hala erabakiko dutelako, gaitasun faltagatik, gogo faltagatik, desadostasunagatik edo edozein arrazoirengatik. Beste batzuk, ordea, ekimenaren berri iritsi ere ez zaielako egingo. Banaketa horren ondorioz, oso modu desberdinetan sare daitezke eremu sozialak.


Demagun, adibide gisa, ondoko taldea (tailerra, lagunartea, kirol taldea...), non hamar lagunetatik bi izango diren Ahobizi, lau Belarriprest eta beste lau aparte gelditu diren (egoera sinplifikatzeagatik pentsatuko dugu kide hauek ez dutela euskaraz ulertzen, edo oso gutxi ulertzen dutela). 1. irudian ikus daiteke egoera hau.

¹ Aldahitz Ikerketa Egitasmoa 2010. urtean abiatu zen Soziolinguistika Klusterraren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen lankidetzaren emaitzaz. Egitasmoaren partaide eta babesle dira, besteak beste, Elhuyar Aholkularitza, EMUN, Ahize-AEK Hizkuntza Aholkularitza, Artez Euskara Zerbitzua, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza.



Halako egoera batek adierazten du, aurrena, egon badagoela talde horretan pertsona kopuru esanguratsu bat euskararen erabilera sustatzeko prestutasuna duena (hamarretik sei baitira Belarriprest-Ahobizi). Kopuru hori ez da txikia eta, hala eta guztiz ere, *hizkuntza-eremu zulatu* batean jarraitzen dugu, pertsona batek ezin izango bailuke eremu horretako harreman guztietan euskaraz jardun. Euskarazko komunikazioak ez du talde horretan *hizkuntza-eremu trinkorik*. Zulo eta hutsuneak ditu han eta hemen.

1. irudia: Hizkuntza-eremu zulatua



Euskaraz ulertzen duen solaskide orekin euskaraz egiteko eskatuko die “**11 egun euskaraz**” ekimenak Ahobizi jardungo dutenei. Eskakizun hori zailtasunik gabe aplika daiteke aurrez aurreko biko harremanetan: solaskideak euskaraz ulertzen badu, orduan euskaraz; eta ulertzen ez badu, erdaraz. Aitzitik, irizpide horren aplikazioa bihurtzen eta korapilatzen hasten da bitik gorako harremanak gogoan hartzen ditugunean. Zer egingo du Ahobizi batek bi solaskiderekin batera ari denean, eta haietako bat Belarriprest izan eta bestea ulertzen ez duen solaskide bat denean? Halako egoera nahasietarako ekimenak ez dio Ahobiziarri argibiderik ematen, umezurtz uzten du. Eta, egia esan, argibiderik ematen saiatuta ere nekez eman lezake ekimenak halakoetan euskararen erabilera benetan gauzatu ahal izateko argibide zehatzik, gauzagarririk edo operatiborik. Uste izatekoa da hizkuntza-egoera nahasietan (non batzuek ulertzen duten eta beste batzuek ez) erdara guztiz nagusituko dela, bera baita komunikazio kolektiboa bidera dezakeen hizkuntza bakarra. Joera hori bizkortu baino ez da egiten solaskideen kopuruak gora egin ahala (laukote, seikote, enekoteak... direnean).

Estimazio matematiko bat² egin dezakegu aurreko irudian oinarrituta, eta kalkulatu solaskideen kopuruaren arabera (bikoteak, hirukoteak, enekoteak...direnean) zenbat egoeretan dagoen euskaraz egiteko gutxieneko baldintzarik eta zenbatetan ez. Estimazio horiek egiteko, hiru premisa hartuko ditugu kontuan. Aurrena, Ahobiziek zein Belarriprestek euskaraz komunikatzeko “gutxieneko baldintzak” betetzen dituztela. Bigarrena, “aparte” gelditutako kideek ez

² Estimazio horiek Txillardegiren formulatan oinarrituta daude. Alvarez, J.L. eta Isasi, X. (1994), *Soziolinguistika matematikoa*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.



dutela euskaraz komunikatzeko “gutxieneko baldintzarik” betetzen, ustez ez baitute euskaraz ulertzen. Eta hirugarrena, talde batean euskaraz ulertzen ez duen inor egonez gero, talde horretako hizkuntza erdara izango dela. Horiek gogoan, 1.taulan daude estimazioak emanda.

1. taula: Noiz egin daiteke euskaraz? Noiz erdaraz? (eremu zulatua)

	Euskaraz (%)	Erdaraz (%)
Bikoteak	36,0 ³	96,0 ⁴
Hirukoteak	21,6	100
Laukoteak	13,0	100
Boskoteak	7,8	100
Seikoteak	4,7	100
Zazpikoteak	0,0	100
Zortzikoteak	0,0	100
Bederatzikoteak	0,0	100
Hamarkotea	0,0	100

Datuen argitan, esan daiteke erabaki pertsonaletan oinarritutako ekimenek biko harremanetan bereziki lortzen dituztela euskarazko komunikaziorako baldintza kolektibo egokiak. Agian hirukoteak ere sar ditzakegu balorazio horretan. Baina laukotetatik aurrera euskaraz egiteko gutxieneko baldintzak hutsaren hurrengoak izaten dira, edo zuzenean desagertu egiten dira. Oro har, euskararen erabilera sustatzeari begira aurrerapauso batzuk ematen badira ere, oraindik oso murrizak dira euskaraz egiteko aukerak, eta erdaraz egiteko aukerekin alderatuta oso urrun dira hizkuntza-berdintasunetik. Hauek dira hizkuntza-eremu zulatuen ondorioz argienetakoak, eta normalean erabaki pertsonaletan abiatutako prozesuek ez dute desberdintasun egoera hau iraultzeko adinako gaitasunik, aurrerapauso batzuk ematen badituzte ere.


Laburrean esanda: hizkuntza-berdintasuna berma dezaketen bakarrak *hizkuntza-eremu trinkoak* dira, eta, ondorioz, haiek dira euskararen normalizazioaren prozesuari benetako hasiera ematen diotenak. Halako eremu batean, teoriarik behintzat, erdaraz zein euskaraz egin daiteke harreman guztietan (%100), kide guztiek bi hizkuntzak **ulertzen** dituztelako. *Belarriprest eremuak* esan diezaiekegu halakoei (ikus 2. irudia), zeren kide guztiek euskaraz ulertzeko (erdaraz ulertzen dutela suposatu egiten da) gaitasuna baitute. Beraz, Belarriprest eremua hizkuntza-eremu trinko bat da, non euskaraz egin nahi duen pertsona orok halaxe egin baitezake harreman guztietan (%100), kide guztiek ulertzen diotelako euskaraz egiten duenean.

³ Hemen hiru harreman mota daude sartuta: Ahobizi-Ahobizi harremana, Ahobizi-Belarriprest harremana, eta Belarriprest-Belarriprest harremana.

⁴ Erdaraz erabiltzeko “ezintasuna” Ahobizien arteko harremanetan gertatzen da soilik, “11 egun euskaraz” ariketak ezarritako hizkuntza-araua betetzearen ondorioz. Gainerako harreman guztietan erdara erabil daiteke komunikaziorako. Belarriprestak ere erdaraz ari daitezke hala nahi badute, ez baitago beren zereginari lotuta euskaraz egin beharrik.



2. irudia: Hizkuntza-eremu trinkoa (Belarriprest eremua)



Aldahitz egitasmoaren bihotza den *Eusle Metodologiak*, hain zuzen ere, hizkuntza-eremu trinko bat hartzen du abiapuntu (Belarriprest eremu bat esan genezake hemengo testuinguruan). Halako eremu batean kokatu ondoren, euskararen erabileraren partida jokatzeko erronka helarazten zaio talde bati. Eta partida hasita, zailtasunak ez dira txikiak izaten. Inertzia zaharrak indartsuak dira, hizkuntza jokaera berriak ahulak hasieran. Aurrerapausoak eta atzerapausoak tartekatzen dira. Ibilbidea ez da beti zuzen, argi eta segurua izaten. Euskararen erabileraren partida ez da erraza eremu trinko batean ere, baina halako eremu trinkorik gabe erabileraren partida bera hasi ezin da egin (partida prestatu edo entrenatu bai, baina ez partida jokatu)

2. taula: Noiz egin daiteke euskaraz? Noiz erdaraz? (eremu trinkoa)

	Euskaraz (%)	Erdaraz (%)
Bikoteak	100	96,0 ⁵
Hirukoteak	100	100
Laukoteak	100	100
Boskoteak	100	100
Seikoteak	100	100
Zazpikoteak	100	100
Zortzikoteak	100	100
Bederatzikoteak	100	100
Hamarkotea	100	100



Erabaki kolektiboek, erabaki pertsonalek ez bezala, indarra eta ahalmen handiagoa dute gizarte-eremu oso bat eraldatzeko eta berregituratzeko, eta, ondorioz, hizkuntza-eremu trinkoak sortzeko, biziberritzeko eta babesteko. Hauxe izan da, hain zuzen, Aldahitz egitasmoaren ikuspuntu estrategikoa azken urteotan, eta ibilbide luze horrek eman digun eskarmentuaz baliaturik hainbat hausnarketa partekatu nahi genituzke erabaki kolektiboen ezaugarriak hizpide hartuta.

2. Zergatik erabaki kolektiboa?

Erabaki kolektiboaren eragin-eremua handiagoa izaten da erabaki pertsonalarena baino. Erabaki kolektibo batek ahalmena du gizarte eremu oso bat berrantolatzen. Erabaki kolektibo batek hizkuntza-arau berria har dezake, eta bere eraginpean gelditu talde barneko harreman mota guztiak: hala harreman txikiak (bikoteak), nola ertainak (hirukote, laukote) eta handiak ere (zortzikoteak...). Erabaki kolektiboen bidez hizkuntza-eremu trinkoak sortu, biziberritu edo babestu egin daitezke.

Erabaki kolektiboak nolabaiteko garantiez hartzen direnean (hala nola, iritzien eztabaida irekia, gehiengo kualifikatuen adostasuna, erabakiak berrikusteko aukera...) normalean halako prozesu bati zilegitasun onartzen zaio. Halako erabakiek nolabaiteko presioa eta erantzun-beharra sorrarazten dizkiete kideei, baina presio hori zilegizat hartzen da, kideek taldeari autoritatea onartzen dioten neurrian. Ondorioz, kideen jokaerak moldatzeko indarra sorraraz dezake erabaki kolektibo batek.

Erabaki kolektibo batek, era berean, babes eremu bat sortzen du, kideak seguru sentiarazten dituena. Hizkuntza-jokaera berriak hasieran zailtasunez, arrotasunez eta zalantzez beterik izaten dira. Horiek gaindituko badituzte, kideek adore, indar, zentzu eta zilegitasuna aurkitu behar dituzte taldearen erabaki sendo eta iraunkorrean. Norberak hizkuntza-jokaera berriari eusteko dituen zailtasunak ez dira soilik norberarenak, talde osoarenak baizik, eta irtenbideek ere norbere ahaleginetik soilik baino gehiago elkarri laguntzetik etorri behar lukete. Taldearen hizkuntza-araua aldatzea taldearen erronka da.

3. Non aplikatu erabakia?

Erabaki kolektibo batek eskatzen du ongi definitzea zein den subjektu kolektiboa: *“Gu” esaten dugunean, nortzuk gara gu?* Erabakia hartzen duen subjektu kolektiboa definitzeak argitzen du zein den erabakiaren eragin-eremua,

⁵ Erdaraz erabiltzeko “ezintasuna” Ahobizien arteko harremanetan gertatzen da soilik, “11 egun euskaraz” ariketak ezarritako hizkuntza-araua betetzearen ondorioz. Gainerako harreman guztietan erdara erabil daiteke komunikaziorako. Belarriprestak ere erdaraz ari daitezke hala nahi badute, ez baitago beren zereginari lotuta euskaraz egin beharrik.



hau da, erabakia non eta nortzuen artean aplikatuko den, eta, era berean, zein egoera eta pertsonak geldituko diren erabaki horretatik kanpo. Argitasun horrek eraginkortasuna gehitzen dio erabakiari.

Plano txikiak, ertainak eta handiak daude gizarte antolamenduetan. Plano txikienean (*mikro*) oinarrizko taldeak ikusten ditugu: sail bat, tailer bat, kirol talde bat, antzerki talde txiki ba, ikasgela bat, eta abar. Plano ertainean (*meso*) oinarrizko taldeen arteko harreman-egiturak ageri dira: enpresa ertain bat, erakunde ertain bat, elkarte bat, ikastetxe ertain bat, udaletxe ertain bat eta abar. Plano handian (*makro*) egitura ertainen arteko harreman-eremuak ikusten ditugu, eta orduan honelakoak ageri dira: enpresa handiak, erakunde handiak, hezkuntza sistema, alderdi politikoak, sindikatuak, justizia sistema, erakunde legegileak, eta abar.

Subjektu kolektiboa definitzerakoan, muga bat zehazten dugu, batzuk barruan eta beste batzuk kanpoan utziz. Talde erabakiak barruko eremua erregulatzeko ahala du, baina ezin du berez kanpoko eremuari loturiko konturik erregulatu. Horregatik, plano batean hartutako erabaki kolektibo baten ahuleziak goragoko planoan konpon daitezke soilik, “gu” kontzeptua zabalduz, “gu” berria definituz, eta erabakia hurrengo planora eramanez. Esaterako, sail txiki batek har dezakeen erabakiak zuzenean eragin dezake sail barruko harremanetan, baina ez luke indarririk izango aldameneko saileko kideen barruko harremanak arautzeko, ez eta bi sailetako kideen arteko harremanak zehazteko ere. Bi sail edo gehiagoren arteko harremanak arautu nahi badira, orduan plano mikrotik plano mesora pasa beharko genuke, “gu” berri batek (enpresak, esaterako) erabakia har dezan. Era berean, plano ertainean (*meso*) beste eremu batzuekin harremanak arautzeko hutsuneak sortzen direnean, plano handira (*makro*) pasatuz eta erabakiguneak han kokatuz konpon daitezke soilik. Gora joate prozesu hori bukatzen da, plano makroaren alderdi publikora iristerakoan (legebiltzarraren, gobernuaren eta justiziaren zereginetara iristerakoan), herritar eta erakunde ororen arteko harremanak arautzeko erabaki nagusiak bertan ebazten baitira.

Erabaki kolektiboen logika Euskaraldiari aplikatuko bagenio, ikusiko genuke plano mikrotik makrora doan dinamika makrotik mikrora doan dinamikarekin behar dela uztartu eta osatu. Euskaraldiak mikrotik gora doan dinamika hartu du abiapuntu. 1.0 bertsioan herritarren erabaki pertsonaletan oinarritu da (biko harremanetan duelarik eragin berezia). 2.0 bertsioan, ordea, entitateak ageri dira erdigunean, seguru asko plano txikian eta ertainean kokatuko dena. Baina dudarik gabe, prozesuaren logikak eskatuko luke 3.0 bertsio bat etortzea, erabaki kolektiboak plano makroan hartzeko, beheko planoetan sortzen diren eta bertan konpondu ezin diren hutsuneak konpontzeko.

4. Zer erabaki?

Talde batek hartutako erabakia praktika soziolinguistikoari lotzen bazaio, orduan *Belarriprest eremua* da erreferente nagusia. Batzuetan erreferente horretara iristeko, beste batzuetan erreferente horretatik abiatzeko, eta kasu guztietan erreferente horren biziraupena babesteko.

Belarriprest eremu batean euskara trabarik gabe erabil dezake euskaraz egin nahi duen pertsonak eremu horretako edonorekin, edonoiz eta edozertaz aritzerakoan, erdaraz egin nahi duen batek egin dezakeen bezalaxe. Bai euska-



rak bai erdarak funtzionalitate komunikatibo bera dute eremu horretan. Eremu horrek hizkuntza-berdintasuna gauzatzen du.

Hizkuntza-berdintasunerako ezinbesteko baldintza da kide guztiek *bi hizkuntzak (euskara zein erdara) ulertzea*. Honek desblokeatzen du egoera komunikatiboa hizkuntza batean zein bestean. Erdarak ziurtatuta dauka baldintza hau. Euskarak, ordea, eskuratzeko dauka egoera askotan.

Hizkuntza-berdintasuna ematen denean, orduan benetan has daiteke, eta ez lehenago, euskararen normalizazioaren aldeko partida, zein baita finean eta funtsean funtzionalitate komunikatiboaren aldeko dinamika bat. Mintzatzea bera da funtzionalitate komunikatiboaren aldeko jokalaririk garrantzitsuen.

Belarriprest eremua esan diezaiokegu hizkuntza-berdintasuna gauzatzen duen eremuari, eremu horretan kide guztiek bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) ulertzen dituztelako, eta ondorioz, aukera ematen diolako euskaraz egin nahi duenari euskaraz egiteko edonorekin, edonoiz eta edozertaz. Kontzeptu nagusi honen inguruan sailka daitezke talde batek har ditzakeen erabakiak euskararen normalizazioaren bidean. Eskematikoki hiru erabaki mota ikusten ditugu:

1) Belarriprest eremuak biziberritzea

Eremu hauetan jada kide guztiek bi hizkuntzak ulertzen dituzte, eta beraz euskararen funtzionalitate komunikatiboa areagotzeko neurriak hartu beharko liriateke bertan, funtsean Ahobiziaren zereginaren bidez. Testuinguru honetan, hain zuzen ere, aplikatu ohi dugu Eusle Metodologia (Soziolinguistika Klusterra).

Testuinguru horretan, euskarak funtzionalitate komunikatiboaren partida jokatzeko erdarak adinako aukerak ditu. Partida harreman mota guztietan jokatzeko da: biko harremanetan bezala, hiruko, lauako, bosteko eta eneko harreman guztietan ere. Eremu trinko bihurtu zaio euskarari harreman-sare osoa, eta abia daiteke erabileraren bidezko benetako berreskuratzea.

2) Belarriprest eremuak sortzea

Badira talde ugari oraindik Belarriprest eremu gisa funtzionatu ezin dutenak, hainbatek euskaraz ulertzen ez duelako, edo nekez ulertzen duelako. Halako talde batek erabakiko balu epe jakin batean Belarriprest eremua izatera iristea, orduan nagusiki bi erronkari heldu beharko lioke.

a. Euskaraz hitz egin nahi duenaren eta euskaraz erdizka ulertzen duenaren arteko harreman komunikatiboari irtenbide ematea.

Soziolinguistika Klusterrak azken urteotan harreman mota hau gogoan edukita *Ulerrizketa metodologia* garatu egin du. *Ulerrizketa* praktika soziolinguistiko partekatua da, non kide batzuek euskaraz ulertzeko gaitasuna era naturalean hobetzen duten beste kide batzuek beraiekin euskara moldatu eta ulergarria erabiltzeko egiten duten ahaleginari esker. Bost orduko formazio saioak jaso behar izaten dituzte kideek, trebetasuna har dezaten hizkera sinplifikatuaz komunikatzeko, ele biko elkarriketen testuinguruan.



b. Euskaraz hitz egin nahi duenaren eta euskaraz oso gutxi edo batere ulertzen ez duenaren arteko harreman komunikatiboari irtenbide ematea.

Kide hauek urruti daude oraindik euskarazko elkarrizketa bat ulertzetik, eta, hortaz, ezinezkoa edo behintzat oso neketsua gertatuko litzateke haiekin euskaraz komunikatzea. Egoera hori gogoan hartuta, ulermenari begirako estrategia garatzen ari da Soziolinguistika Klusterra azken hiru urteotan: *Uler-saioen metodologia*. Honezkero hainbat esperientzia burutu ditugu lantoki batzuetan. Laburrean, *Uler-saioen metodologia* 30 orduko lau modulutan (120 ordu guztira) banatzen da, jende heldua euskaraz erdizka ulertzeraino iritsi dadin. Saio hauetan irakasleek daramate ardura nagusia hasieran, baina aurrera egin ahala kide euskaldunek ere parte aktiboa hartzen dute komunikazio errealean murgilduz, eta *Ulerrizketa metodologiaren* tankerara nabarmen hurbilduz.

Pentsatzekoa da Belarriprest eremuak sortzeko bidean prozesuak ez direla beti motz-motzak izango. Talde bakoitzaren hizkuntza-osaketaren arabera, prozesuaren iraupena motzagoa ala luzeagoa izan daiteke. Seguru asko, ekimen puntualak egitea baino gehiago plangintza zehatzak prestatzea eskatuko dute prozesu hauek. Aditu, aholkulari edo irakasleen laguntza ere beharrezkoa izango da. Hala ere, prozesu hauek ahalik eta gehien laburtzera bideratu beharko genituzke ahaleginak, prozesuak luze-luzeak eta mugarik gabeak izan ez daitezten. Bi-hiru urteko tartea neurri zentzuzkoa izan daiteke halako plangintzetarako. Gure ahalegin kolektiborik hoberenak jarriko beharko genituzke honen zerbitzura, tresna ugari eta emankorrak izan ditzagun eskura Belarriprest eremuak epe motz-ertainetan sortzeko.

3) Belarriprest eremuak babestea

Hizkuntza-berdintasuna eskuratu duen eremu batek ez du horregatik betiko lortu egoera hori. Gizarte-eremuak ez dira inoiz guztiz itxiak, eta ezusteak eta mugimenduak beti izaten dira. Lortutako berdintasuna hauskorra izan daiteke hainbat babes neurri hartzen ez badira. Gogoan hartzekoak dira, bereziki, bi egoera:

a) Taldera datozen kide berriena.

Talde batek ezarri eta zehaztu beharko lituzke kide berriak etortzerakoan zein hizkuntza irizpide erabiliko lituzkeen hizkuntza-berdintasuna ziurtatzearen aldera, eta aurretik Belarriprest eremua sortzeko egin diren ahaleginak zaputuz ez daitezten.

b) Talde batekin harremanak dituzten beste talde batzuetako kideena.

Enpresa baten kasuan beste talde horiek honako hauek izan daitezke: hornitzaileak, bezeroak, administrazioa... Harreman horiek guztiek talde barruko hizkuntza funtzionamenduan eragin zuzena dutenez gero, haien araubidea goiko plano zabalago batera eraman beharko litzateke, erabaki kolektiboaren aterpea handiagoa izan dadin. Mikro, meso eta makro mailen arteko dinamikak kontuan hartu beharko lirateke, beheko planoetan arautu ezin diren kontuak goiko planoetan arautu behar direlako.



5. Nork erabaki?

Aldaketa prozesuetan aldeketasuna bera baino gehiago eragozpen maila da gogoan hartu beharreko faktorerik erabakigarriena. Aldekotasuna da ibilgailu baten azeleragailua, eta eragozpena haren balazta. Ibilgailu batek oso ibilbide luzea egin dezake, abiadura mantsoan bada ere (azeleragailua gehiegi erabili gabe), baina ez da oso urrutira iritsiko balazta-pedala etengabe sakatuta edo esku-balazta jarrita.

Egoera polarizatueta aldekoak eta kontrakoak nagusitzen dira, eta tartean daudenen kopurua murriztu egiten da, edo protagonismoa galdu bederen. Esango genuke, beste hitzetan, jarrera urratzailea eta eragozlea dutenak biak direla indartsu eta beren arteko lehiek eta talkek taldearen protagonismoa bereganatuta dutela. Ordea, jarrera egokitzaila dutenak bigarren plano batera pasatzen dira. Badirudi aldi berean ibilgailuaren azeleragailua eta balazta zapalduta ibilgailua inora gabe dabilela, energia pila xahutu arren.

Aldaketa egoera optimoetan, aldeko eta kontrakoen indarra ez da hain agerikoa, eta tartekoen jarrera egokitzailak nagusitzen dira. Multzo egokitzaila handia zabalik dago aldekoen planteamendu zentzuzkoetara, eta kontrako jarrera dutenek ez dute helduleku handirik zentzuzko planteamendu horri bizkarra emateko.

Hizkuntza-aldaketa prozesuetan ez da ideia txarra erabakiak gehiengo kualifikatuz (%75 adibidez) hartzea. Erabakia gehiengo kualifikatu batez hartzeak adieraziko bailuke planteamendu berria zentzuzkoa dela tarteko jarrera egokitzaila dutenentzat, eta maila apalera ekarri duela jarrera eragozleen eragina. Baldintza horiek egokiak dira hizkuntza-arau baten aldaketa abiatzeko, eta denboran zehar hari eusteko.

6. Noiz erabaki?

Talde batek hasieran soilik ez, prozesu osoan zehar etengabe berretsi edo berraztertu beharko luke erabakia.

Hizkuntza-aldaketa prozesuetan aitzakiaren bat behar izaten da maiz abiatzeko, eta maiz aitzaki hori kanpotik datorkio talde bati. Hasiera batean izugarri lagundu dezake kanpoko pizgarri ahaltso batek (Euskaraldiak, Ikerketa Proiektu batek...) talde batek lehen erabakia har dezan, eta ohiko inertziak astinduz planteamendu berriak onar ditzan.

Baina, prozesu osoari ezin zaio nagusiki kanpotik heldu. Ibilbide berria hasitakoan, prozesuaren beraren arrakastak elikatu behar du aurrera jarraitzeko gogoia. *Jarduera-motibazioa* esaten diogu guk praktika arrastatsuek sorrarazten duten kemenari. Talde batek bere burua erregulatzeko eta modu lasaian jarduteko behar du prozesuaren kontrola bere esku duela sentitzea. Hori sentitzeko modurik emankorrena da aldiro erabakiak berrestea. Sentitzea ildo bati

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



baietza esan dioten bezala, edozein unetan ere horri ezetza esan diezaioketela. Hau da, zerbaitetan sartzeko askatasuna izan duten bezala, hortik ateratzeko ere askatasun bera dutela.

Zentzu horretan, komeni da, talde batek ildo berri bati heltzeko erabakia hartzen duenean, lehenik argi eta garbi zehaztea zenbat denboratarako hartzen duen erabakia, hau da, jakitea zein den jardueraren hasiera eta bukaera data. Epe hori bukatzerakoan, taldeak beste erabaki bat hartu beharko luke: jarraitu bere horretan, jarraitu zerbait aldatuta edo ez jarraitu. Prozesuak luze direla antzematen direnean, komeni izaten da prozesu luze hori zati txikiagotan banatzea eta haietako bakoitzaren hasieran berriz heltzea erabakitze jardunari.